



12-18 URTE

heldu

JARDUERA	JARDUERAK	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA
1	Korrikaren aurkezpena Korrika15en bideoklipa eta abestia.*	- Korrika 15en aurkezpena, girotzea.	- Bideoklipa ikusi. - Korrika 15en abestia entzun. - Sarrera eta irteera orduetan, bazkal orduetan eta jolasaldietan bozgorailuetatik korrika 15en abestia jarriko da.	- Bideoklipa lehen egunean jarriko dugu, kanpainaren hasiera legez. - Korrikaren abestia Korrikak irauten duen egun guztietan jarriko da bozgorailuetatik.
2	Erabilera kanpaina: "HIZKUNTZAREN INGU- RUKO HAUSNARKETA".*	- Ikasle bakoitzak arb- gandik hasita (birrai- tona-birramona) euskara- rekiko harremana zein izan den jakitea, egungo egoera hobeto ulertzeko eta pre- ziazteko, eta noski, hiztun kontziente izateko.	- Bakoitzak bere hizkuntza- genealogia osa dezan datuak bil- tzeko orri bat banatuko da. Bi- rraitona-birramonengandik hasita ikaslearengana iritsi bitartean datu esanguratsuenak bildu. - Egun batzuen epean datuak esku artean dituztela gelan talde txikietan (lau lagunen artean) bildutako informazioaren inguruan hausnarketa egin: zein garaitan jaioak diren arbasoak, non, zein hizkuntza izan duten etxean eta zein hizkuntza jokaera gailendu zaien. Hausnarketa egiteko 20 urteko epeak hartzen ziren kontuan, hots: 1900-1920, 1920- 1940, 1940-1960, 1960-1980, 1980-2000. Gure helburua euska- raren atzeratze prozesuan eragin duten faktoreen inguruan haus- narketa egitea da, baita euskararen aurreratzean eragin dutenen	- Datu bilketa etxean egingo da etxerako lan gisa. - Hausnarketarako euskara arloko 45 minutu erabil dai- tezke. Saioaren azken 15 minutuetan ondorio orokorrak atera.

JARDUERA	JARDUERAK	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA
			inguruan ere. Eta batez ere, azpimarratzea geroa gure esku dagoela: hizkuntzak hiztunak behar dituela. Ondoren, taldeko kide batek gainontzeko gelakideei jakinarazi holakoa den bere taldeko joera nagusia.	
3	Norberaren hizkuntza biografia idaztea.*	- Ikasle bakoitzak euskarekiko harremana zein izan den ezagutzea egungo egoera hobeto ulertzeko eta preziatzeko, eta noski, hiztun kontziente izateko.	- “Euskara eta ni” istorio-ereduaz baliatuta ikasle bakoitzak bere familiaren historia idatziko du. - Biografiak pasabideetan ezar daitezke.	- Egokiena 2. jarduera burutu ondoren egitea da. Hala ere, hausnarketa egin gabe ere gauzatu daiteke biografia. - Euskara arloko saio bat.
4	Komunikabideetan Korrika.	- Komunikabideetako Korrikaren erreferentziak ikastolan zabaltzea. - Korrika 15 jarraitzea. - Euskal Herria ezagutzea.	- Euskara Elkarteko ikasleek komunikabideetan agertzen diren berriak megafoniaz irakurriko dituzte. - Ondoren, berria moztu eta ikastetxeko sarreran kokatutako Euskal Herriko mapa erraldoian itsatsiko dute.	- Korrikak dirauen bitartean. - Euskal Herriko mapa mutua DIN-A3an jarriko dugu ikastetxeko sarreretan.
5	Ipuina.*	- Kidetze plana abian jartzea. - Ahozotasuna lantzea.	- Zenbait proposamen: 1. KIDETZEA. Ipuina gidoitzat hartu eta antzerki emanaldi bat prestatuko dute ikasle gaztetxoentzat. 2. KIDETZEA. Gaztetxoenen gela-tara joan eta ipuina irakurriko diete. Gaztetxoentzat ipuinaren laburpentxo bat osatuko dute.	- Ikasle helduenek 30 minutu inguruko antzerkia prestatu dezakete.

JARDUERA	JARDUERAK	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA
6	Aurtengo Korrikako omen- dua: EUSKAL EMAKU- MEAK.*	-Gaur egungo emaku- meen egoera aztertzea. - Hizkuntzaren garapenean emakumearen zeregina zein izan den aztertzea.	- Martxoaren 8aren inguruko testua irakurri eta ondoko galderei erantzun. - Lan produktiboa eta erreproduk- tiboari buruzko jarduerak. - Etxeko lanen banaketaren ingu- ruko jarduerak.	- Ordubeteko bi saio.
7	Egungo euskal emaku- meen biografiak.*	- Egungo euskal ema- kumeak ezagutzea. - Azalpen biografikoa egitea.	- Azalpen biografikoa aztertzen du- en jarduerak. - Azalpen biografikoa idazteko jar- duerak.	- Ordubeteko iraupena duten bi saio.
8	Korrika Txikia eta jaialdia.	- Elkarlana bultzatzea. - Euskararen alde lan egi- tea. - Herria girotzea, herrian eragitea.	- Jaialdia Korrika Txikia antolatzen den egun berean egingo da. Elka- rrekin ospatzeko eguna da, beraz, kideak kontuan izango da.	- Korrika pasatzen denean egin daiteke. Korrika ez bada herri- tik pasatzen, beste edozein egunetan egin daiteke.

* Garatutako jarduerak

heldu

MEZUA HELDU

Euskaldunok euskaraz mintzatuz adierazten dugu geure euskaldun izaera, euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria. Euskara da gure nortasun agiria, euskara da munduari hemen herri bat dagoela adierazteko oinarria. Horregatik diogu **HELDU HERRIARI**.

Bada garaia urteetako menderakuntza, jazartze eta zigorren ondorioz baztertua izan den euskarak bere esparrua berreskuratzeko. Euskarak Euskal Herri osoko hizkuntza izan behar du. Horretarako, konpromisoak behar ditugu, eta aurreko Korrikaren mezuari jarraituz, konpromisoaren beharra eta balioa azpimarratu nahi ditu korrika 15ek, ez garelako hutsetik abiatzen. Horregatik diogu **HELDU HITZARI**.

Belaunaldiz belaunaldi kontra izan dituen legeei aurre eginez, euskararen aldeko konpromisoari heldu zioten euskaltzaleei esker dirau euskarak. Lagun horien konpromisoa eta elkarlanean aritzeko borondatea izan ziren euskarak, oztopo guztien aurka, gaur egun arte bizirik jarraitzeko euskarria. Horregatik diogu **HELDU ELKARLANARI**.

Korrika 15ek, beraz, euskara ikasi eta erabiltzea eskatzen digu euskal herritarroi, eremu berriak zabaltzeko eta elkarlanean aritzea. Eta alderdi, sindikatu, elkarte eta erakunde guztiei, euskara ukatzera datozen legeak eta jarduerak baztertu eta euskaraz bizi ahal izateko bideak eraikitzea. Horregatik diogu **HELDU EUSKARARI**.

Iraganeko kemenak eman du emaitzarik, baina oraindik asko daukagu egiteko. Orduko lanaren fruitua jaso dugunoi dagokigu orain lekukoa hartzea. Horregatik diogu **HELDU LEKUKOARI**.



ZUHAITZ GENEALOGIKOA

1. Datuak zuhaitzean idatzi.
2. Emaizten bilketa:

a) Datu orokorrak

Zenbat ikaslek dituzte birraitona-amona guztiak euskaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte birraitona-amona guztiak erdaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte birraitona-amona euskaldun-erdaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte aitona-amona guztiak euskaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte aitona-amona guztiak erdaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte aitona-amona euskaldun-erdaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte gurasoak euskaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte gurasoak erdaldunak?

Zenbat ikaslek dituzte gurasoak euskaldun-erdaldunak?

b) Zenbat familiatan galdu da euskara?

c) Zein belaunalditan galdu zen?

BELAUNALDIA	KOPURUA
1. belaunaldia 1890-1900	
2. belaunaldia 1920-1930	
3. belaunaldia 1950-1960	

heldu


Helburua:

Zuen familian euskararen erabilerak denboran zehar izan duen garapena ezagutzea.

Bildu beharreko datuak:

Zuen guraso, aitona-amona (4) eta birraitona-birramonen (8)

- Jaiotza-data
- Herria
- Ama-hizkuntza





EUSKARA ETA NI: NIRE FAMILIAREN HIZKUNTZA GENEALOGIA AZTERTUZ

HELBURUA

Ikasle bakoitzak arbasoengandik hasita (birraitona-birramona) euskararekiko harremana nolakoa izan den jakitea, egungo egoera hobeto ulertzeko eta preziatzeko eta, noski, hiztun kontziente izateko.

NORI ZUZENDUA

DBH / DBHO

ARDURADUNA

Tutorea eta euskara irakasleak.

DESKRIBAPENA

Tutoreak: helburua aurkeztearekin batera ikasle bakoitzak bere **hizkuntza-genealogia** osa dezan datuak biltzeko bereziki prestatutako **orri bat** banatuko du. Birraitona-birramonengandik hasita ikaslearengana iritsi bitartean datu esanguratsuenak bildu: nondarra, garaia, euskaraz bazekien ala ez, erabiltzen zuen ala ez.

Tutoreak: astebeteko epean datuak esku artean dituztela gelan **talde txikitan** (lau lagunen artean) bildutako informazioaren inguruan **hausnarketa egin**: zer garaitan jaioak diren arbasoak, non, zein hizkuntza izan duten etxean eta nolakoa hizkuntza-jokaera gailendu zaien. Hausnarketa egiteko 20 urteko epeak hartzen ziren kontuan, hots: 1900-1920, 1920-1940, 1940-1960, 1960-1980, 1980-2000.

Gure helburua euskararen atzeratze prozesuan eragin duten faktoreen inguruan hausnarketa egitea da, baita euskararen aurreratzean eragin dutenen inguruan ere. Eta batez ere, azpimarratzea geroa gure esku dagoela: **hizkuntzak hiztunak behar dituela**. Ondoren taldeko kide batek gainontzeko gelakideei jakinarazi zein den bere taldeko joera nagusia, hots: gaur adina euskaldun alfabetaturik ez da egon, euskararen atzeratzean eragin duten faktoreak zein izan diren, aurreratzean eragiten ari direnak...

Euskara irakaslea: “Euskara eta ni” istorio ereduaz baliatuta ikasle bakoitzak bere **familiaren historia idatzi** du. Ekintza hau **euskarako**

3. JARDUERA

12-18 URTE

kurrikulumean txertatuta dago. Bakoitzaren historia erredaktatzeko eredu modura (eredu linguistikoa) erabil litekeen adibide bat aztertzen da gelan: hiztegia, esamoldeak, lokailuak,... bere historia idatzeko denbora utziko da gelan/etxean eta lanak biltzeko epea zehaztu. Beste edozein lan bezalaxe zuzendu egingo da.

BALORAZIOA

Iraupena eman nahi zaion proiektzioaren arabera izango da. Bitxia suertatzen zaio ikasleari arbasoen berri jasotzea, jakin-min handia sortzen dio, baita ezustea ere kasu askotan. Aberasgarria da ikasleentzat, desberdintasunak desberdintasun, joera orokorrak nola errepikatzen diren ohartzea. Baliagarria da oso, bestalde, egungo egoeraz eta ikaslearen hizkuntz portaeraz hausnarketa bideratzeko.

heldu

EUSKARA ETA NI

Idatzi hau kontaketa modu baten adibide soilak baino ez da.

Zalantzarik gabe nork bere egoerara egokitu behar du. Bertan biltzen diren zenbait alderdi, direla hizkuntzakoak (esaerak) direla soziopolitiko-linguistikoak erabilgarriak dira baliozkoak diren neurrian, horretarakoxe dago idatzita ere.

"Nire euskalduntasunaren nondik norakoa arakatzeko aukera eman didaten honetan ustekabeko galantak aurkitu ditut nire arbasoen hizkuntza-jokaerei erreparatzen hasita. Ondoko lerrootan, eskuratu ahal izan ditudan datuetan oinarrituta, birraitona-birramonengandik hasi eta gaur egunera bitartean nire familiaren eta euskararen arteko harremana zein neurritakoa eta nola garatua izan den adierazten saiatuko naiz. Aitor dezadan hasieratik, niri bizitzea egokitu zaidan XXI. mende honen hasieran, gure hizkuntza zahar honen egoera zein den ulertzea errazago egin zaidala.

.....

Nire amaren aldeko ahaideak sortzez gipuzkoarrak ziren agidanez. Bere aitona-amonak XX. mendearen hasierako urteetan jaioak, data zehatzik eskuratzeko aukerarik izan ez badut ere. Hizkuntzaz, euskaldunak. Zortzi seme-alaba izan omen zituzten eta urte haietako bizi-estualdiak zirela medio, nire aitona Manuel izatera iritsiko zena izan ezik, gainontzekoak erbestera joan ziren eta han ama-hizkuntza galdu. Nire aitona, ordea, 1925ean Lizartzan jaioa, euskaldun peto-petoa izan omen zen, soldaduska egitera joatea egokitu zitzaion bitartean behintzat, eta han jasan zituen gutxiespenak zirela eta, hasi omen zen gaztelera ikasten. Baita ederki ikasi ere! Urte batzuk geroago emazte hautatu zuen neska gazte hari, nire amona Axuni, behin baino gehiagotan errepikatu izan baitzion, "neska, neska

3. JARDUERA

12-18 URTE

euskarak jendaurrean lotsa gorritan jartzeko baino ez din balio eta egin iezaizen erdaraz umeei!", "ikas dezatela lehenbailehen, mesede galanta!". Urteak ere halakoxeak: nazionalek Espainiako gerra irabazi eta Franco agintean zen.

Nire amona Axun, Gipuzkoako Oresa herrian, 1935ean jaioa, harri eta zur geratzen omen zen lehen aldian horrelakoak entzutean bere senarrari, baina eskolatik etxerakoan seme-alabak erdaraz barra-barra hasi zitzaizkionean berak ere horixe bera pentsatu omen zuen eta suma, resta eta multipilkarrearekin batera "ama, ¿qué hay de merienda?" entzun zuenean erdaraz ikasteak kalterik ez ziela ekarriko pentsatu omen zuen, horrela munduan hobeto konponduko zirela iritzi omen zion, lanbide on bat aurkitzeko aukera oparoagoa izango zutela eta handik aurrera etxe hartako sukaldean bi hizkuntza izan ziren buruz buru: gurasoak euskaraz, tarteka gaztelera egiten zutela eta seme-alabak gero eta gaztelera hobean. Tolosako kaleetan jolasean zebiltzala, Eskolapioetako nahiz Jesuitinetako jolastokietan nekez entzun omen zitekeen umerik euskaraz. "Kaxeroena" zen esan didatenez 60ko hamarkadan euskaraz hitz egitea. Horrela, bada, nire amak ederki ikasi zuen gaztelera, baita frantses ere. Eta euskara, ume kontuetan aritzeko adina gorde omen zuen, ez gehiago.

1975. urtea, ordea, erabakigarria izan zen nire ama Bakartxorentzat. Hogeitaz urteak bete berrian, Frontoiko dantzalekuan, igande arratsalde euritsu batez, hor agertu omen zitzaion "Bailas?" esanez mutil gazte lerdin eta atsegin bat. Ezetz ezin esan eta "Bueno...". Handik aurrerakoak parrez kontatzen ditu amak eta nire aitak, berriz, haserrez. Tolosako neskak txoro hutsak omen ziren, euskaraz dantza eskatzera joanez gero, kalabaza jasotzea segurua izaten omen zen eta nola edo hala gaztelera egin behar.

Negu hartan sarritan egin omen zuen nire aitak Ordiziatik Tolosara. 25 urte zituen, maestriako titulua eskuan eta lanean ari zen Beasainen. Franco hilberria eta Lazkaoko beneditarren gau-eskolan astean

hirutan entzuten omen zituen: euskaldunok herri bat garela, zazpi probintzian banatuta, bi estaturen mende; geure usadioak ba omen ditugu eta baita elkartzen gaituen hizkuntza bat bera ere. Euskara beste hizkuntzak bezala komunikatzeko balio duen tresna dela, euskalki askotan banatuta dagoela, hitz egin nork berea egiten dugula, idatzi Euskara Batua delakoan egin behar dugula. Orduantxe konturatu omen zen nire aita bere hizkuntzan analfabetoa zela. Euskaraz ere literatura eta musika bazirela. Eta "Hegoak ebaki banizkio enia izango zen, ez zuen alde egingo, baina horrela, ez zen gehiago txoria izango" M. Laboaren kanta ezagunaz baliatuta, edo X. Letek ahots sarkorrez kantatzen zuen "Nafarroa ..." harekin edo beste haren "Nire aitaren etxea defendatuko dut" poemarekin jorratu omen zuen hizkuntza eta sentimenduak eta mundua euskaraz deskriba zitezkeela ohartu, eta inork inoiz irakatsi ez zizkionak ikasi. Autodidakta esaten zaio bere kabuz ikasten duenari, ez?, halaxe izan zen bada, nire aita.

Zerbaiten jabe egin zenean, lehen egitekoa izena aldatzea izan omen zuen. Ordura bitartean Joxe izan zena, handik aurrera Joseba bihurtu zen eta nire amarekin izandako lehen hizkuntza-eztabaiden ondotik, hurrengo adiskidetzeari, Sole izan zena etxean eta lagun artean, Bakartxo izatera iritsi zen. Nire ama urte haietan ez zen euskaraz egiteko gauza, baina izena behintzat euskaldundua zuen. Bazen zerbait eta nola ez, lauburua lepoan zintzilikatu eta Euskal Herriko Zazpi probintziak biltzen zituen zilarrezko eraztuna atzamarrean jantzi. Aitak oparitu zizkion elkarrekin ospatu zuten lehen urtebetetzeari. Azcue eta Echeverria abizenak ere Azkue eta Etxeberria izan ziren handik aurrera.

Geroago, Tolosan ez ezik, beste herri askotan ere euskaldun kontzientzia indartzen ari zela erruz hasi zen jende heldua alfabetatzen, ikastolak ere orduantxe indartu ziren. Dagoeneko 1980. urtean sartuta geunden.

Guraso izatera iritsi zirenean beren seme-alaben hizkuntza euskara izango zela erabaki zuten eta ni neu horren lekuko nauzue. Beste hiru senideren artean gazteena nauzue, nik euskaraz badakit eta nire amak ere lagunarteko hizkeran aritzeko adina ikasi zuen euskaltegira bidean jarri beharra izan baitzuen nire aitarekin ezkonduko bazen. Horrela *Jalgi hadi!* euskara ikasteko metodoarekin berreskuratu omen zuen hizkuntza. "Ama, atea! -Ireki ezazu ba", "Nor da?" eta antzekoak behin eta berriro errepikatuaz. Gaur haserre bizian ez denean euskaraz egiten dit. Aitarekin ere saiatzen da. Baina, ohiturak asko agintzen omen du hizkuntza kontuetan eta "Joseba, qué te parece...?".

Ez diguzue alferrik esaten geu garela herri honen geroa, eta egingo nuke baietz."

Amets Azkue Etxeberria

heldu

IPUINA KORRIKA

Pozalaguako leizeen barren-barrenean, haitzuloaren zati ezkutuan, zokorik ilunenean, lasto epelen gainean etzanda, lo ederrean ari zen Otsanda. Lo ederrean, eta zurrunga latzean. Ez pertsona arrunt batek egiten duen moduan grarr-groorr arnasestu hotsak sortuz. Ez, ez. Soilik hartzek, otsoek eta, sagardotegitik bueltan, bertsolariek egiten duten moduan baizik, GRARRR-GROORR orro gisako zurrungak boteaz. Eskerrak, Otsanda otsakume gaztea zen oraindik. Bere neba zaharrena edota, okerrago, aita egokituz gero, ez zen zarata jasaterik izango.

Hala ere, ez zen makala Otsandak sortzen zuen zurrunga hotsa ere. Hainbestearino, ze aurrekoak baino ozenagoa izan zen azken zurrungak izututa, Otsanda bera kolpetik esnatu baitzen.

Begiak zabaldu, makarrak garbitu eta ingurura begiratu zuen:

– Non ote nago?

Haitzuloko sabaitik behera luzatzen ziren estalaktita ederrak ikusi zituen, etxeak baino handiagoko leize zabalak eta, irribarre batez, Pozalaguan zegoela oroitu zen. Negua heldu aurretik, hantxe babestu zen gainontzeko otsoekin batera.

Makarrak kendu zituen berriro, ezker-eskuin begiratu.

– Non daude besteak baina?

Lanturu triste bat irten zitzaion Otsandari. Lo hartu eta bere lagunak galdu zituen! Bera han ahaztuta alde egin zuten. Otsoen izaera ez da malko asko isurtzekoa, ordea. Ilargiari bakarrik egiten diote negar, eta hori ilargi beteko gauetan baino ez. Nagiak atera, eta lagunak bila korrika hasi zen, beraz, Otsanda, muinoz muino eta sakanetik sakanera.

Karrantzako inguru ezagunak utzi eta, otsorik ez topatzean, Araba aldera jotzea erabaki zuen Otsandak. Bera, gaztea izaki, ez zen



5. JARDUERA

12-18 URTE

sekula inguru haietan ibili. Aitona Otxotorenak, hala ere, otsoak garai batean lur haietan guztietan lasai mugitzen zirela kontatua zion.

Hala ere, kezka apur bat sortzen zion bide hura bakarrik egiteak. Eta gizakiekin topo eginez gero, zer? Zenbait gizaki otsoen beldur zirela entzuna zien taldeko nagusiei. Basapiztia izugarri eta arrotz moduan hartzen zituztela, nahiz eta beste askok, geroz eta gehiagok, haien alde ere lanean jardun. Otsandak beldur hori ezjakintasunaren fruitu zela pentsatu zuen. Ezagutzen eta ulertzen ez dugunak sortzen baitigu ia gehienetan beldurra.

Pentsamendu horrek aurrera jarraitzeko adorea eman zion. Airean, gainera, otso usaina nabaritzea iruditu zitzaion. Handik igaro ziren bere lagunak.

Usain arrastoari jarraituz, Errioxako mugaraino iritsi zen Otsanda, Bastida inguruetarara. Mahastiz jositako paraje eder haietan geratzeko gogoia izan zuen, baina bere usaimenak berriro gora, Gasteiz aldera jotzeko agintzen zion eta atsedetik hartu gabe segitu zuen bidea.

Lotan denbora asko galdua izango zuen, ordea, Gasteizera ere berandu heldu baitzen. Otsoen lorratzak topatu zituen han. Lurrean garbi zegoen oinaren forma. Bai, han izan ziren bere lagunak, baina Gipuzkoarantz abiatu ziren gero.

Muga igaro eta gau eta egun egin zuen korrika Otsandak, zubiak gurutzatu, mendiak igo, bailarak zeharkatu eta amildegien artetik egin zuen jauzi, sekula ere itxaropenik galdu gabe. Otsoak, izan ere, iletsuak izateaz gain oso egoskorak dira. Belarri eta belarri artean zerbait sartzen bazaie, ez dute etsiko lortu artean.

Etsi, hortaz, ez zen etsitzen ari Otsanda bere bilaketa luzearekin.

Nekutzen bai, ordea. Eta majo gainera. Urruti ez zebilela sumatzen zuen, otso usaina gero eta indartsuagoa zen bazter guztietan, baina hainbeste bide egin eta ez zuen inor topatzen. Gipuzkoa zeharkatu zuen, Pasaian bira eman, Bizkaiko



beste muturreraino iritsi, atzera Bilbora itzuli, handik Zeanuriraino... eta ezer ez.

Agurain igaro, Sakanan barrena pauso geldian zihoan Otsanda, sinetsi ezinik, urrutira korrika zihoazen bi irudi ikusi zituenen. Belarriak tentetu eta fandangoa dantzatzeko gogoa sartu zitzaion. Azkenean! Abiadura bizkortuz, bere aurretik zihoazen bi korrikalariak harrapatu zituen.

Ez ziren otsoak baina. Gizakiak ziren. Kolpera izututa, Otsanda uzurtu egin zen makilakada baten beldur. Berehala, ordea, amultsuki diosala ematen zion ahots gozoa entzun ahal izan zuen.

– Ongi etorri, gazte! Zer, nolatan habil paraje hauetatik hain bakarrik? Otsandak, beraien parera jarri eta korrika egiteari utzi gabe, mintzatu zitzaion andreari begiratu zion. Ile urdinuareta eta sudur gaineko antiojoei. Baita soinekoaren gainetik janzten zuen zenbakidun dortsalari ere. Arraroak ziren benetan gizakiak! Bere aldamenean, biloba izango zuen neskatilak irribarretsu begiratzen zion Otsandari. Gari koloreko mototsak ageri zitzaizkion kapusai gorriaren azpitik. Hark ere txaleko tankerako dortsal hura zeraman.

Otsandak, gizaki haiek beraganako asmo txarrik ez zutela erreparatuta, erantzuteko garaia zela erabaki zuen.

– Gabon, andrea. Otsanda naiz. Neure otso taldea galdu dut eta bide luzea daramat haien atzetik, usainari jarraiki, noiz topatuko zain. Orain arte ez dut zorte handirik izan ordea.

– Beno, lasai. Ez etsi ez tristatu horregatik. Gu ere beste batzuen atzetik gabiltzan, Iruñea bidean. Oraindik ere badinagu bide pixka bat Nafarroan barna. Etorri gurekin nahi badun. Ez ditun hauek bakarrik ibiltzeko bideak. Aizkolari edo ehiztari batekin topo eginez gero ere...

– Eta zuek? –galdetu zuen Otsandak jakin-minez – Zuek ez al zarete haien beldur? Otsoena ere ez?

– Gu? Neska, neska... Gu bestela ere bakarrik moldatzera ohituta gauden, bai. Eta bazekinagu zer den gure herrian arrotz sentitzea gainera. Ezagutzen ez denak ematen din beti beldur handiena.

Otsandak baiezkua egin zuen buruaz, barrutik pozez gainezka. Aitona Otxotorenak bezain zuhur hitz egiten zuen amona hark. Ia hitz

berberak erabiliz. Bitan pentsatu gabe, bada, haiekin joatea erabaki zuen.

Gorritxotarrekin egin zuen aurrera Nafarroan barna hortaz. Amona eta bere biloba Txanogorritxorekin. Hegoalderaino iritsi ziren, Tuterara pareraino eta handik atzera gora berriz, Donibane Garaziraino. Bidean, tarteka, amonak prestatutako jaki goxoren bat irensteko geldialdixoren bat egiten zuten berriz ibilbideari ekin aurretik. Ez zeuden bakarrik gainera. Gorritxotarrekin korrika hasi zenetik, beste jende multzoa bildu zitzaion inguruan. Eta gero eta gehiago ziren, Iruñera hurbildu ahala. Inork ez zion, ordea, Otsandari begi txarrez begiratzen. Kantari eta alai zebiltzan guztiak, bidean zalaparta ugari eginaz.

Otsandak, nekatuta baina pozez gainezka, sudurzuloetara usain ezagun bat iristen zitzaiola sumatu zuen Iruñeko ateetan.

– Amona! Taldekoak hemen daudela uste dinat!

– Bai horixe! Banekinan nik! Ikusten? Helmuga beti zagon han zain korrika bertara heldu nahi duenarentzat. Tori, jantzi ezan hau lepoan –amonak gorri koloreko zapi bat eman zion Otsandari–. Nik neuk egin dinat hiretzat. Iruñera behar den moduan sartu beharra zagon!

Horrela sartu ziren amona, Txanogorritxo eta Otsanda, lepoan zapi gorria zeramala, Iruñera. Jendetza zen bertan. Zahar eta gazte, haur eta heldu. Denak barrez.

Baita Otsandaren otso taldea ere, helmugarako azken metroak eginaz zenbakidun dortsalak jarrita. Otsandari bihotzak eztanda egin behar ziola iruditu zitzaion.

- Heldu gara! – egin zuen algara- Hau da hau jende pila hau! ULUUUUU!!!!



1. Irakur ezazu testu hau.

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna izan zen. Egun honek badu bere historia eta guk hemen laburbildu dizuegu. Horrez gain, Euskal Herriko hainbat emakumeren nondik norakoak bilduko ditugu. Berdintasuna ez da lortu, baina emakumeek aurrerapau-soak eman dituzte.

1857. urtean, New Yorken, emakume batzuk matxinatu egin ziren ehungintza lantegi batean, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna nahi zutelako. Azkenean, fabrika erre egin zuten eta bertan zeuden emakumeak hil egin zituzten. Hala, 1908. urteko maiatzaren 3an, Chicagoko alkandora lantegi batean, emakume sozialistek ospakizun bat egin zuten "Women's Day" izenez ezaguna, New Yorkeko lantegi hartan gertatutakoa kontuan izanik. 1909-1910. urteetan, greba luze bat antolatu zuten, emakumeak protagonistak zirela.

Europako zati handi batean, lehenengo Emakumearen Nazioarteko Eguna 1911n ospatu zen, baina martxoaren 19an. Martxoaren 8koa erabat sendotzeko, 1914a arte itxaron behar izan zen. Hala ere, egun hori boto eskubidea lortzeko

LANA IZANGO DU, BERE BURUAREN JABE IZANGO DA, EZ DU EZ TRATU TXARRIK, EZ MARGINAZIOK JASOKO, ETAB., ETAB.



NESKATOA BADA ERE?

ZERGATIK BEHAR DU HAU AINTZAKOTZAT HARTZEKO?



ezarri zuten, eta ez, urte luzeetan uste izan dugun moduan, antegietako grebak zirela eta.

Egun horrek hainbat gorabehera izan zuen eta espainiar estatuan 1977. urtean berreskuratu zen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, Franco hil ondoren.


Emakumeen egoera gaur egun

Gaur egun, Euskal Autonomia Erki-degoan, euskal langile-klasearen zatirik handiena 650.000 emakumeek osatzen dute.

"Etxekoandreek" osatzen dute euskal langile-klasearen zatirik handiena. Eta gogoan izateko beste datu bat hau da: etxeko lanaren % 92 emakumeek egiten dute.

Etxea alde batera utzita, emakumearen lan tasa % 57'5 da eta gizonezkoena, berriz, % 80. Gainera, 35 urtetik gorako emakumeen artean, aldea are handiagoa da. Eustat-ek egindako inkesta baten arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeek gizonek baino denbora gehiago pasatzen dute etxeko lanak egiten; gutxi gorabehera, hirukoitza. Bukatzeko, sexuen artean berdintasuna lortzeko benetako borondatea dutenentzat urteko 365 egunak dira martxoaren 8a, eta ez egun hau soilik.

DIFERENTZIARIK BAI?



BESTERIK?

2.000ko martxoak 8
8 marzo de 2.000



heldu

2. Ideia zaparrada

- Berririo jaioko bazina, zer aukeratuko zenuke, neska ala mutil jaiotzea? Zergatik?
- Inoiz sentitu al zara diskriminatuta emakume edo gizonezko izateagatik?
- Zein emakume ospetsu ezagutzen ditugu? Nongoak dira?

3. Lan produktiboa eta erreproduktiboa

Jarduera honen **helburua** da lan erreproduktiboa zer den jakinaraztea, baita ezinbestekoa dela eta gehienetan emakumeek egiten dutela ere. Gure gizartean etxetik kanpo eta ordainduta egiten den zereginari bakarrik deitzen zaio lana (hau da, tailer, denda, bulego edo obra batean). Etxean eta familiaren esparruan egiten dena, diruz ordainduta ez dagoenez gainera, ez da aintzakotzat hartzen, ez da lana kontsideratzen. Horrelako hainbat zeregin daukagu: etxea garbitzea, janariak prestatzea, erosketak egitea, arropa zaindu eta konpontzea, beste pertsonak zaintzea, esaterako, seme-alabak, pertsona zaharrak, gaixoak; azken batean, estimua adierazi eta orokorrean etxeak funtziona dezan behar diren lan guztiak egitea.

Etxean egiten den lanari eta pertsonen biziraupenaz eta mantenuaz arduratzeari **lan erreproduktiboa** deritzo. Etxetik kanpo egiten den lanari eta diruz ordainduta dagoenari, berriz, **lan produktiboa**. Lan erreproduktiboak lan produktiboa burutzea ahalbidetzen du. Lehenengoa egingo ez balitz, ezin izango litzateke bigarrena egin. Noizbait pentsatu al duzue bi lan mota hauek existitzen direla?

Eguneroko zereginetan

Bi taldetan jarri eta hor dituzuen bi testuak adi-adi irakur itzazue. Talde bakoitzak 1. egoera edo 2. egoera antzeztu beharko du, irakasleak aholkatzen dizuenaren arabera. Erabaki ezazue nola antzeztuko duzuen eta nork. Talde bakoitzean pertsona batzuk aukeratu behar dituzue, behaketa egin dezaten eta ardura daitezen beste taldearen antzeztanari buruzko informazioa jasotzen behean dituzuen

6. JARDUERA

12-18 URTE

galderei erantzunez. Gero ikasgelako guztion artean eztabaidatuko duzue. Kartoi meheak, oihalak eta beste tresna batzuk erabil ditzakezue antzezlanaren errazteko. Ekitaldia hasi egingo da!!

1. egoera:

Peruk 45 urte ditu. Bere lan eguna goizeko 9etan hasten da. Egunero – astelehenetik ostiralera- goizeko 8etan altxatzen da, dutxa hartzen du eta bizarra kendu eta gero, txukuntzen den bitartean, emazteak prestatu dion kafea gosaltzen du. Kafea hartu eta gero, etxetik ateratzen da eta mekanikari lana egiten duen tailerrera joateko autoa hartzen du. Hogei minutuko bidea egiten du gutxi gorabehera. Lanera iristen denean lankideak agurtzen ditu, irratian entzun dituen berriak komentatzen ditu eta lan-jantzia janzten du. Goizeko hamarretan edo, beste lankideren batekin ateratzen da gosaltzera; itzultzen denean, lan eta lan ordu biak arte, etxera bazkaltzera joateko ordua. Ordu bi eta erdietan etxera iristen da eta bazkaltzeko mahaia eta den-dena prest aurkitu ohi du. Bazkaldu ondoren besaulkian lo kuluxka bat egiteko ohitura dauka, berririo arratsaldeko 5etan lanera bueltatu arte. Han 8ak arte egongo da. Lanetik ateratzen denean, egun batzuetan, lankideekin geratzen da tabernan garagardo bat hartzeko, egun horretan gertatutakoa edota gauean jokatu den futbol partidari buruz hitz egiteko. Etxera ailegatzean, esertzen da atsedean hartzeko eta telebista ikusten edo seme-alabekin hitz egiten duen bitartean afaria prest egon arte zain geratzen da. Afaldu ostean, besaulkian jesartzen da eta telebistako programaren bat ikusten du ohera joan arte, hurrengo egunean berririo hasteko.

1. Aipatu banan-banan Peruk egiten dituen ekintza guztiak.
2. Zer ordutan jaikitzen da? Zer ordutan bukatzen du lana?
3. Zer egiten du bazkaldu ostean? Eta afaldu eta gero?
4. Zein egunetan egiten du lan? Zein da bere ordutegia?
5. Peruk lan egiten duela uste duzu? Zergatik?

heldu

2. egoera

Marianek 48 urte ditu. Goizeko 8ak laurden gutxiagotan altxatzen da, komunera joaten da eta txukuntzen da, gero sukaldaria doa eta gosaria prestatzen du. Senarrak komunean bukatzen duenean, berak seme-alabak esnatzen ditu dutxa har dezaten eta gosal dezaten. Zortzi eta erdietatik aurrera hasten dira etxetik irteten senarra eta seme-alabak, eta orduan gosaltzen du Marianek. Ondoren, etxeko leihoak irekitzen ditu, oheak astindu, hautsa kendu, erratza pasa eta aurreko egunean bukatu gabe gelditutako gauzak jasotzen ditu. Geroago, sukaldaria eta komuna garbitzeko txanda dator. Zeregin horiekin bukatzen duenean, goizeko 11:30ak dira eta orduan janitzen da erosketak egitera joateko. Egun batzuetan banketxera joateko ere aprobetxatzen du edo eginbeharren bat egiteko.

Erosketak eginda etxera itzultzen denean, erosi duena gordetzen du eta bazkaria prestatzen hasten da, eta normalean oso justu ibiltzen da ordu bi eta erdietarako dena prest izateko. Ordu bietatik aurrera mahaia prestatzen hasten da eta berehala hasten dira ailegatzen alaba, semea eta senarra. Elkarrekin bazkaltzen dute. Bukatutakoan, Marian altxatzen da mahaia jasotzera eta seme-alabek lagundu egiten diote berak harrikoa egin, sukaldaria jaso eta zorua garbitzen duen bitartean. Hori guztia egin ondoren, kafe bat prestatzen du senarrak lanera bueltatu aurretik har dezan. Guztiek alde egiten dutenean, sofa gainean etzaten da pixka batean deskantsatzeko telebistako programaren bat ikusten duen bitartean. Batzuetan lo gelditzen da. Esnatzen denean, egunen arabera, metatuta daukan arropa lisatzen hasten da edota josi gabe daukan arropa josten.

Alaba, semea edo senarra itzultzen direnean, pixka bat hitz egiten dute, baina berehala joaten da sukaldaria afaltzeko zerbait prestatzen hasteko eta mahaia prestatzeko. Afaldu eta gero, Marian altxatzen da mahaia jaso eta harrikoa egiteko. Esertzen denean, pelikula hasita egoten da eta erdi lo geratzen da sofa gainean.

6. JARDUERA

12-18 URTE

Semea edo alaba ez bada etxera bueltatu, esna geratzen da zain. Oheratu aurretik leihoak itxita dauden begiratzen du eta berogailua itzalita. Azkenean ohera joango da egun berri bat hasteko prest egoteko. Marian etxekoandrea da, astelehenetik igandera egiten du lan eta ez dauka erretiroa hartzeko itzaropenik.

1. Zerrenda itzazu Marianek egiten dituen zereginak.
2. Zer ordutan altxatzen da? Zer ordutan bukatzen du lana?
3. Zer egiten du Marianek bazkaldu ondoren? Eta afaldu eta gero?
4. Zein egunetan egiten du lan? Zein da bere ordutegia?
5. Marianek lan egiten duela uste duzu? Zergatik?

heldu

4. Nork egiten du lan bakoitza?

Aztertu zure familia, ama, aita, anaia-arrebak eta amona eta aitona zurekin bizi baldin badira. Irakurri arretaz taula honetan agertzen diren lanak eta idatzi nork egiten ohi dituen. Idatzi ondoren, talde txikitan bildu eta komentatu zuen artean ezberdintasun handiak dauden ala ez eta konparatu gero gelako beste kideekin.

	AMA	AITA	NI	NEBA AHIZPA	ARREBA ANAIA	AMONA	AITONA	BESTE NORBAIT
Erosketak egin								
Gosaria prestatu								
Ontziak garbitu								
Erratza pasa								
Arropa garbitu								
Lisatu								
Eskolako lanean lagundu								
Etxetik kanpo lan egin								
Bazkaria prestatu								
Automobila gidatu								
Zu iratzartu								
Leihoak garbitu								
Ordenagailua erabili								
Ikastetxeko bileretara joan								
Gaixo zaudenean zaindu								

1. Azalpen biografikoa aztertzen.

EDURNE PASABAN, pausoz pauso, gailurrez gailur

Edurne Pasaban Lizarribar Tolosan jaio zen, 1973ko abuztuaren 1ean. Amaren aita, Joakin Lizarribar, altzotarra da, Artzadun Bitarte baserrikoa. Beraz, altzotar odola zainetan daramala esan dezakegu lasai asko. Ikasketez Ingeniari Tekniko Industrial da, eta Tolosako Pasaban makinagintza enpresan aritzen da lanean, proiektu sailean, menditzar horietakoren batera joana ez denean.

Gurasoengandik datorkio mendirako zaletasuna. Pixkanaka-pixkanaka alpinisten munduan sartzen joan zen eta erronka handiagoak jartzen hasi zen bere buruari: Pirinioak, Alpeak, Andeak eta azkenik Himalaia.

Pirinioetako "mendikoxkor" gehienak menderatu eta gero, Alpeetara eramán zituen bere hanka luzeak: Mont Blanc (4.807 m), Cervino (4.478 m), Monte Rosa (4.633 m) igo zituen, besteak beste.

Hego Ameriketako Andeetara joan zen gero. Ekuadorreko hainbat mendi igo zuen 1994an: Chimborazo (6.310 m), Cotopaxi (5.897 m), Tumguragua (5.016 m) eta Guagua Pichincha (4.971 m). Handik bi urtera, 1996an, Andeetara itzuli zen berriro, Perura oraingoan, eta Urus (5.495 m) eta Ishinca (5.530 m) menditzarrak igo zituen.

Harrezkero Himalaian jarriak ditu begiak eta jomugak. 1996an, Peruko bi mendiak igo zituen urte berean, Dhaulagiriako espedizio batean sartu zen Tolosako beste lau gazterekin batera. 8.172 metroko garaiera du mendi horrek, baina elur asko zegoela ikusirik atzera egin behar izan zuten 7.900 metroraino igo eta gero.

1999an egin zuen Everestera igozteko lehen eginahala. Italiar espedizio batean sartu zen, eta gailurrera oxigenorik gabe igozteko saiakera egin zuten "Mallory" deritzan bidetik. Eguraldi txarra zela eta, atzera egin behar izan zuten 8.300 metrora iritsi eta gero 2000.

urtean egin zuen Everestera igozteko bigarren ahalegina, euskaldunen espedizio batean oraingoan. "Mallory" bidetik saiatu ziren berriro. 8.600 metrora heldu ziren oxigenorik gabe, baina berriro atzera.

- Zer da biografia bat?

- Nolakoa izan behar du? Objektiboa/subjektiboa, laburra/luzea, literarioa/ez hain literarioa, pertsona bat goraipatzea helburu dutenak/ pertsona baten alderdi iluna erakutsi nahi dutenak...

- Osatu euskal emakumeen zerrenda hau eta esan zergatik diren ospetsuak.

- Ondoren, gehitu itzazu beste bost euskal emakumeren izenak.

Maialen Lujanbio
Idoia Zenarruzabeitia
Ainhoa Arteta
Ane Igartiburu
Arantxa Urretabizkaia
Karmele Jaio
Afrika
Itxaro Borda
Aizpea Goenaga
Joane Somarriba
Josune Bereziartua

h





2. Azalpen biografikoa idazten.

Binaka jarrita, hautatu goiko emakumeen izen horietatik bat, eta idatzi hari buruzko 10 bat lerroko azalpen biografikoa, alboko pausoei jarraituz:

1. Zehaztu helburua. Zeri emango diozue garrantzia, pertsonari ala alderdi profesionalari? Eta zer egingo duzue, goraipatu ala kritikatu?
2. Erabaki norako egingo duzuen: Interneten jartzeko? Power Point bidez eskolan azaltzeko? Taldekideei ahoz azaltzeko?
3. Hautatu eta kontrastatu erabiliko duzuen informazioa (Interneten informazio ona duzue).
4. Ordenatu helburuaren arabera aukeratu dituzuen ideiak, eta idatzi zirriborria.
5. Pasa beste bikote bati, eta zuzendu elkarri zirriborria (ortografia, aditzak, sintaxia, antolatzaileak –denbora adierazteko, informazioa gaineratzeko...-).
6. Idatzi, eta ahal izanez gero, irudiren bat gehitu.
7. Denon artean, baloratu egindako lanak.

Lagungarriak:

Honako galdera hauei erantzunez idatz dezakezue azalpena: non eta noiz jaio zen?, zergatik da ezaguna?, nola lortu du?, hari buruzko zer azpimarratuko zenuke?

heldu